

Kanalak:

Behin enpresa sortuta dagoenean, bezeroetara heldu behar da. Hori egiteko hainbat modu pentsatu ditugu:

Ez dugunez kapital askorik publizitatea egiteko, gure webgunea sortzea pentsatu dugu. Hasieran, informazioa eta eskaerak egiteko tokia egingo da, baina ez dira arropak bidaliko, horrek inbertsio handia suposatzen baitu. Webgune honetan, bakoitzak bere arropa diseinatzeko aukera izango du, eta gainera, kontsulta telefonikorako aukera ere egongo da (gainera, WhatsApp aplikazioa ere erabiliko dugu gure bezeroek arazo edo galderaren bat izanez gero). Bestalde, informazioaren atalean, gure enpresari buruzko informazioa agertuko da, nor garen, zer egiten dugun, nola laguntzen diogun planetari... Horretaz gain, esan dugun bezala norberak bere arropa diseinatzeko aukera izango duenez, "tutorial" moduko bat agertuko da, bezeroak bere eskaintza egiteko zailtasunik ez izateko.

Interneteko munduarekin lotuta, sare sozialak erabiliko ditugu baita ere, instagram eta twitter-eko kontuak sortuz. Gainera, Instagram plataformak, enpresentzako txokoa du, bertan, norberaren produktuak promozionatzeko aukera baitago, oso merke gainera. Bertan, guk egindako arropen argazkiak eguneratuko ditugu, eta noizbehinka jantzi baten zozketa egingo dugu gure bezeroentzat edo gure enpresa sustatzen dutenentzat.

Horrez gain, zonaldeko herrietako aldizkarietan egingo dugu publizitatea, oso merkea delako. Adibidez Elgoibarko Barren aldizkarian, Soraluzeko Pil-pilean aldizkarian, Debako Berriketan...

